

RAPID erako beste 60 denda irekiko ditu datozen lau urteetan

EROSKI-K "RAPID" ERAKO SALTOKIA AURKEZTU DU, KOMENENTZIAKO DENDETARAKO EGINA

- EROSKI k zabaldu egin du bere formatu komertziala, komenentziako denda berriekin; horrelako dendek osatuko dute orain hipermerkatuen, supermerkatuen eta autozerbitzuen sarea.
- RAPID komenentziako dendek sortarik zabalena dute metro koadroko; kontsumitzailearen 800 premia ere betetzen ditu, eta ordutegi zabala du (08:00etatik 23:00etara) asteko egun guztietan
- Janari freskoak ez ezik, marka liderretako eta EROSKIren marka propioako produktuak eskaintzen ditu
- RAPIDek gaur aurkeztuko du bere lehen frankizia Mallorcan; orain arte, sei saltoki jarri dira martxan Bartzelonan, pilotu denda gisa
- Tokian tokiko ekintzaileekin frankiziatzeko planean, hiriguneak eta alderdi turistikoak aukeratuko dituzte; batez ere, Madril, Andaluzia, Balear uharteak, Levante eta Bartzelona.

Mallorca, 2017ko maiatzaren 18a.- [EROSKI](#)k RAPID erako komenentziako denda berria aurkeztu du gaur, formatu komertzialetan egin duen azken berrikuntza. Oso eredu komertzial lehiakorra da; 150 metro koadro inguruko dendak dira, oso urbanoak eta biztanleria dentsitate handia duten eremu turistikoetakoak. RAPID denda berrietan, metro koadroko, eskaintza komertzialik handiena dago. Horrelako saltokiek kontsumitzailearen 800 premia askotariko betetzen dituzte, eta 3.600 produktuko sorta bat izaten dute, oso prezio doietan.

RAPID dendaren gama zabala da: janari freskoa; fruituak eta barazkiak pisura; haragi eta arrain ontziratua; eta, gainera, labea dute beti izateko ogi egin berria. Janaritan, edaritan, drogeriatan eta lurrinetan, beti erabiltzen ditu ekoizle liderren markak eta EROSKIren marka propioak.

"Gaur egungo gizartearen eta ekonomiaren testuinguruan kontsumo premiak betetzea izan da proiektu honen abiaburuko ikuspuntua. RAPIDen asmoa da kontsumitzaileen gogoko denda txikia izatea eguneroko gauzak erosteko orduan, bai eguneko gauzak prestatzeko eta bai momentuan jateko, oso prezio lehiakorretan", esan du EROSKIren denda formatuetako zuzendariak, Esther Saez de Vicuña.

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Laster batean erosteko pentsatua dago denda hau; oro har, etxerakoan edo lanerakoan erosteko edo, gune turistikoetan, eguneko edozein momentutan. Hortaz, "denbora falta" dutelako komenentziako denda batean erosi behar duenarentzat dago diseinatua, askotan ustekabeko premia dutenentzat. Denda honek, gainera, berrikuntza teknologikoak dakartza, efizientzia energetikoa hobetzeko eta ingurumen eragina gutxitzeko. Hau da, hotz eta klimatizazio sistema berriak eta ekipamendu efizienteak ditu.

Non egongo diren RAPID konbenientziako denda berriak: jende asko pasatzen den kaleetan eta biztanleria dentsitate handiko auzoetan eta hiriguneetan; orobat, enpresa ugari eta langile kopuru handiak kontzentratzen diren eremuetan.

Horrez gain, RAPID komenentziako denda berriak kostaldean hedatuko dira, turista sail handiak dauden lekuetan. Esate baterako, gaur aurkezten dugun saltokia Mallorkako Pagueran dago (Calvia), Platja kaleko 4.ean. RAPID erako lehen komenentziako denda da Balearretan, eta 152 metro koadroko aretoa du; 100.000 euro kostatzen da hura martxan jartzea, eta lau lanpostu sorrarazi ditu.

Balearretako lehen denda honetaz gain, beste sei daude dagoeneko Bartzelonan, diseinuaren eta denda pilotuen fasean ireki direnak. Bi bat urteko lana izan da.

Enpresari txikientzako frankizia berria

EROSKIren asmoa da frankizien bitartez hedatzea RAPID erako komenentziako dendak, tokian tokiko enpresari txikiekin. Katalunian eta Balearretan aldi berean abiatu du hedapen hori, eta, pixkanaka, aurrera joango da hiriko beste alderdi batzuetan eta kostako eremu turistikoetan barrena.

RAPID frankizietan, hurbileko harremana izaten da bezeroarekin; saltzailea bere negozioaren zuzendaria da, eta EROSKIren eskarmentu handia duten profesionalen eta konfiantzazko markaren babesa izaten dute.

"RAPID erako lehen denden emaitza bideragarritasun planean espero zena baino hobea izan da, nola frankizientzat hala geuretzat. EROSKIkoontzat, tokian tokiko enpresariekin egiten den luzera begirako akordio bat da frankizia. Analisiaren eta bideragarritasun planaren lehen faseetatik aholkularitza erabatekoa ematen dugu, eta, gainera, martxan diren denden segimendua egiten dugu, frankiziatuari negozioaren kudeaketan laguntzeko eta etengabe bere bezeroen beharretara egokitzeko", esan du EROSKIren Frankizien zuzendariak, Enrique Martinezek; haren ustez, *"aholkularitza profesionala eta hurbiltasuna dira, negozio*

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

errentagarritasunarekin batera, alderdirik nabarmenenak RAPID erako lehen frankiziatuetan".

EROSKI bigarrena da gaur egun Espainiako frankiziatuen sarean, 500 bat dendako frankizia sarea baitu. Datozen 4 urteetan, komenentziako beste 60 denda ireki asmo du; batez ere, Madrilen, Andaluzian, Balearretan, Levanten eta Bartzelonan; denda horiekin osatuko du frankiziatuen gainean eratu duen plan indartsua, zeina azken urteetan bizkortu egin baitu. EROSKIk, gainera, hitzarmenak sinatu ditu zenbait bankurekin, oraingo eta etorkizuneko frankiziatuek babesia izan dezaten eta finantza baldintza onak lor ditzaten baldin denda berri bat ireki behar badute eta eguneroko jardueran sortzen diren premietan laguntza behar badute.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.877 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, hor ditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horrez gain, gasolindegia, bidaia bulegoak, lurindegia eta kirol ekipamendurako dendak. Zazpi milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.870 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide.

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)